

# Gure lehenengo zenobioak

*Joan den hilean monasterio eta komentuak aipatzen nituen, eta orain zenobioekin nator. Jakitekoa da, bada, zeri deitu zitzaion "zenobio", eta Euskal Herrian halakorik izan bada, noiztik eta non egon den zenobiorik.*

Kristau fedea taldean biziz eta modu arautuan bizi izateko sortu ziren lehenengo bizilekuei deitu zitzairen horrela, kasik esango genuke talde-bakarlekuak zirela. Grekotik dator zenobio hitza (*koinós* eta *bios* erroetatik), eta 'elkarbizitza' esan nahi du. Horregatik, *zenobita* 'elkarrekin bizi direnei' deituko zaie.

Ikusiko dugun bezala, egon zen horrelakorik Euskal Herrian, geroko monasterio handi eta ezagunen aurretik. Noan, bada, horretaz argibide pare bat ematera.

## Sorburuak gogoratu

Anakoretan bakardade-bizitzaren ondorio osagarri bezala sortu zen zenobitismoa. Bakardadean eta bakarrik bizi zen basamortuko anakoretaren batengana inguratutakoek osatu zuten mugimendu hura.

Hori gertatu zitzaion San Antonio Abadeari (c.250?-356), hirietatik ihesi edo urrunduz zetozenak inguratu zitzaizkiola, aholku eske lehenengo eta haren inguruan bizitzera gero. Bakardadea bilatzen zutenek, azkenik, monje-lagunartea sortu zuten Egiptoko lurraldean, *zenobioak* antolatzean. Gerora ere gertatuko zen horrelakorik.

Milaka lagun bildu zituen mugimendu hari arauak ematea izan zen hurrengo pausua: horrela, San Pakomiok (Tabennisi, 323) eta beraren ondoko Abadeek idatzitako Erregelaren bidez

lortu zen erlijiosoarte hura batasun egoki batean gidatzea.


Mediterranioaren inguruetan kasikerabateko berritasun erlijiosoak zen hau, IV. mendean, lehenagotik apenas ezagutu baitzen paganoen artean sinestunen halako elkarerik, ez Egipton, ez Grezian, ez eta Erroman ere, nahiz eta Asia aldeko Budismoan, adibidez, monje-lagunartek sekulako lekua izan duten beti. Dena den, ez da ahaztu behar I-III. mendeetako Kristautasunak ez zuela ezagutu moja eta monjerik.

Ondoren, Egipto eta Ekialde Hurbiletik etorritako monje-tradizioaren berri jakinda, Europako Mendebaldean ere han eta hemen maisu eta monasterioak agertu ziren; horien artean, VI-VII. mendeetan Penintsula Iberiarrekoak, beren Erregela eta guzti: San Fruktooso-ren Erregela, adibidez, 646koa da.

## Lehen pausuk, Arabako lurretan

Europako beste toki anitzetan bezala, Euskal Herriko anakoreta eta monjeen historia, hemengo tradizio beneditarra baino lehenagokoa dugu. Hain zuzen horretaz esan nahi dut zerbait orain.

Aurreko batean aipatu nuen San Eulogio eta nafar Pirinio aldeko monasterioena (IX. mendeko hura), baina badirudi han bertan zerbait lehenagotik zetorrela monasterioen historia hori, IX. mendea baino lehenagotik alegia, nahiz eta horren proba garbiak falta zaizkigun.



*Santorkaria (Laño)*

Hala ere, aztarnategiek erakutsi digutena-  
ren arabera, euskal zenobitismoaren lehen urra-  
tsak Araban eman zirela esan dezakegu: Ibañu-  
da ibaiaren estreinako lurretan eta Omecillo  
ibaiaren Gobiaren-goetan. Lehenengo hartakoak  
dira, adibidez, Trebiño inguruetan dauden Fai-  
du, Albaina, Laño eta Markiz-eko harpeak, eta  
Omecillo jaio berriaren arroan lekukurik daude,  
besteak beste, Corro, Tobillas eta Pinedo-koak.

Aterpe-koba hauek Prehistoriatik izan zituz-  
ten beren bizilagunak, baina ez da hori beraien  
bereizitasunik nabarmena. Geroago, erro-  
matarrak desagertuta gero ere, bizitzeko bali-  
tu izan zen jendea harpe eta kobazulo haue-  
taz. Garaian garaiko gizakiaren eskulanak age-  
ri dira garbiki bertan.

Ikertzaileentzat, deigarriak izan dira harpe  
hauek, beren baitan gordeta dituzten lekuko-  
tasunengatik, eta hainbat jakitunek aztertu  
ditu, hasi J.M. Barandiaran edo T. Arantzadi-gan-  
dik (1923) eta Latxaga (1976) edo A. Azkarate-  
ganaino (1988). Hala ere, oraindik hainbat gal-  
dera dago ongi argitu gabe.

Ikerkuntza horiek lortu dute, ordea, gure gaia-  
rekin zerikusirik duten datu batzuk ziurtatzea,  
bisigotuen garaietako kristau-aztarnak gorde  
baitituzte gure egunak arte (V-VII. mendeak).

Hormatan ez da falta kristau izkriburik: "Ora-  
te lectores sic dominum abeatis adiutorem", dio  
Laño-n harpeko otoiitz batek. Hara otoiitzera bil-  
dutako VI-VII. mendeetako anakoretan otoi-  
tzak dira horko pareta-izkribuak. Aztarnak dio-  
tenez, garbiki eremita edo anakoreta talde  
elkartu baten aurrean gaude Trebiño eta Gobia-  
rango kasu hauetan, nahiz eta guztiaren kro-  
nologia finkatzea ez den erraza.

Posible da zenobita haien lehen pausuk V.  
mendekoak ere izatea; VI. ean zalantzarik gabe-

koa da han bizi zirela, eta segurua da VII. ean,  
arte, indarrean zeudela zenobiten bizileku  
hauek. Hurrengo mendea izango da, Faidu,  
Laño eta Albaina hutsik geratuko diren garaia,  
arabiarren etorrera ondoren (p. 711).

Hortaz, mende pare bateko historiarekin egi-  
ten dugu topo harpeetako zenobio hauetan,  
baina, esan daiteke, ez dakigula deus han bizi  
izandako lehen erlijioso haiei buruz. Nongoak  
ote ziren? Zein Erregelak ote zuten?

Hipotesi bat ere luzatu da (Azkarate) gal-  
detuz ez ote ziren izango (berriz ere Egipton  
bealatsu) gizarte ofizialetik ihesi etorritako  
kristauak, hain zuzen VII. mendeko politika bis-  
gotuaren beldurrez (hauen politika zibil, mili-  
tar eta eliztar gogorretik ihesi, alegia). Edota, bis-  
gotuak erortzean, arabiarrengandik hanka egi-  
nez zetozen monjeek VIII. mendean sortutako  
babeslekuak ote ziren (Latxaga)?

Nolanahi ere, horrela hasitako Euskal Herri-  
ko zenobitismoak VI-VII. ean izan zuen bere loral-  
dia, eta hurrengo mendeetan bestelako segi-  
da bat izango du, indar eta antolamendu han-  
diagoz ezagutuko duguna.

Hurrengo batean egokituko da horretaz  
zerbait jakiteko aukerarik.

#### *Gehiago jakiteko*

AZKARATE GARAI-OLAUN, A. (1988): *Arque-  
ología cristiana de la Antigüedad Tardía en Al-  
ava, Guipúzcoa y Vizcaya*. Vitoria-Gasteiz: Dipu-  
tación Foral de Alava.

LATXAGA (1976): *Arkaitzetako bisigotiko  
baselizak Araban*. Bilbo: La Gran Enciclopedia  
Vasca.

*Galderak eta oharra*: 610273580.

**Joseba Intxausti**